

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 185/2016 Foru Dekretua,  
abenduarien 20koa. Honen bidez, mendetasuna duten  
adinekoentzako eguneko zentroko plazen gehieneko kostua  
aldatzen da; erabiltzaileak eguneko egin behar duen  
ekarpen ekonomikoa zehazten da, eta aurrekontuko diru-  
izendapena eta kreditu-erreserba ezartzen dira 2017, 2018  
eta 2019rako  
(2016ko abenduaren 30ko BAO)**

**ZIOEN AZALPENA**

Mendetasun-egoeran dauden adinekoak eguneko zentroetan sartzeko sistema eta dagozkien banakako laguntza ekonomikoak arautzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 21eko 113/2016 Foru Dekretuak 8. artikuluan hau ezartzen du:

«Eguneko zentroko plazen gehieneko kostu teorikoa urtero finkatuko da, foru agindu bidez.»

Kudeaketa errazteko eta berdintasunaren printzipioa bermatzeko, erabaki da plaza psikogeriatrikoen prezioa eta mendetasun-plazena bateratzea eta bietarako prezio bakarria ezartzea. Beraz, ekainaren 21eko 113/2016 Foru Dekretuan ezarritako plaza-modalitateekin bat, bakarrik ezarriko dira prezio desberdinak kontuan hartuta garraioa erabiltzen den ala ez.

Bestalde, erabiltzaileak eguneko egin behar duen ekarpen ekonomikoa zenbatekoa ere arautzen du dekretu horrek. Hain zuzen, 9. artikulua haxe ezartzen du:

«Zerbitzuaren erabiltzaileak urte bakoitzerako egin beharreko eguneko ekarpena kalkulatzeko, zerbitzuaren kostua (zenbat euro egunean) eta erabiltzaile horren gasturako eguneko ahalmena hartuko dira kontuan. Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa pertsonalaren edo, hala bada, hurrengo artikuluan definitutako bizikidetzaren unitateko kideek per capita duten eguneko ahalmen ekonomikoa portzentaje bat joko da gasturako eguneko ahalmena. Portzentaje hori beren-beregi onartuko den foru dekretu batean jasoko da.»

Artikulu horretan ezarritakoa betetzeko, ehuneko hori zehaztu egin behar da, eta desberdina izango da adjudikatzen den plaza-modalitatearen arabera (astelehenetik ostiralera; larunbatetik igandera; garraioarekin bai edo ez).

Halaber, ekainaren 21eko 113/2016 Foru Dekretuak hau xedatzen du bere lehen xedapen gehigarrian:

«Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, banakako laguntza ekonomikoak ordaintzeko aurrekontu-izendapena eta kreditu-erreserba Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako emandako foru dekretu bidez ezarriko dira.»

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, diru-laguntza bat emateko, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da, eta inguruabar hori oinarri arautzaileetan azaldu behar da.

Aurreko guztia kontuan hartuta, laguntza ekonomiko hauei aurre egiteko aurrekontuko diru-izendapena eta kreditu-erreserba zehaztu behar dira.

Aurrekontuko partida honen kontura ordainduko dira laguntzak: Saila (03), Organikoa (0303), Egitaraua (231.106), Ekonomikoa (46100), PEP (2007/0633).

Dena dela, hitzarmena baliozkoa izan dadin, ezinbestekoa da indarrean egongo den ekitaldiko aurrekontuan haren ondoriozko betebeharrak ekonomikoak finantzatzeko behar den kreditu nahikoa egotea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesteko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurrekoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17 eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizarte Ekintza Saileko diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko abenduaren 20ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau,

## XEDATZEN DUT:

Lehenengo: Eguneko zentroko plazen (psikogeriatrikoak eta mendetasun fisikokoak) gehieneko kostu teorikoa honela zehaztea:

	2018 urtea (ekainaren 1etik aurrera)		2019 urtea (urtarrilaren 1etik aurrera)		2020 urtea (urtarrilaren 1etik aurrera)	
	BEZ barik (€)	%4ko BEZ (€)	BEZ barik (€)	%4ko BEZ (€)	BEZ barik (€)	%4ko BEZ (€)
Garraioa barne	60,69	63,12	63,24	65,77	66,13	68,78
Garraio barik	50,09	52,09	52,19	54,28	54,59	56,77

Zifra horiek urtero berrikusi ahal izango dira, baldin eta horretarako aurrekontuko diru-izendapen nahikoa badago eta modu sinesgarri batean egiaztatzen bada zerbitzuaren kostuek gora egin dutela.

*Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 29 ko 72/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarrean 2018ko ekainaren 1etik aurrerako ondoreetarako idatzitako lehenengo atala. Dekretu horren bidez abenduaren 20ko 185/2016 Foru Dekretua aldatu zen. Azken horren bidez, berriz, mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroetako plazetarako gehieneko kostu teorikoa aldatu zen, erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztu zen eta 2017rako, 2018rako eta 2019rako kreditu- erreserba eta aurrekontuko kontsignatzea finkatu ziren a (ekainaren 8ko «BAO»).*

*Indarraldia: 2018ko ekainaren 9 a*

*Ondorioak: 2018ko ekainaren 1 a*

Bigarrena: Plaza-modalitate desberdinak kontuan harturik, eguneko zentroaren erabiltzaileak egin beharreko ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko ehunekoak zehaztea honela:

- Astelehenetik ostiralera, garraio-zerbitzuarekin: pertsona batek eguneko duen ahalmen ekonomikoa %35, edo, bizikidetzaren unitatearen per cápita ahalmen ekonomikoa %35.
- Astelehenetik ostiralera, garraio-zerbitzurik gabe: pertsona batek eguneko duen ahalmen ekonomikoa %30, edo, bizikidetzaren unitatearen per cápita ahalmen ekonomikoa %30.
- Larunbatetik igandera, garraio-zerbitzuarekin: pertsona batek eguneko duen ahalmen ekonomikoa %45, edo, bizikidetzaren unitatearen per cápita ahalmen ekonomikoa %45.
- Larunbatetik igandera, garraio-zerbitzurik gabe: pertsona batek eguneko duen ahalmen ekonomikoa %40, edo, bizikidetzaren unitatearen per cápita ahalmen ekonomikoa %40.

Lau kasuetan, bizikidetzaren unitatea ekainaren 21eko 113/2016 Dekretuan ezarritakoaren arabera kalkulatu da. Hileko ekarpena kalkulatzeko, erabiltzailearen eguneko ekarpena (arestian adierazitako moduan kalkulatu) biderkatu behar da eguneko zentroa irekita dagoen egunen kopuruagatik.

Edonola ere, erabiltzailearen eguneko gastu-ahalmena -aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera kalkulaturik- zerbitzuaren eguneko kostuaren %90 baino gehiago bada, erabiltzailearen ekarpena zerbitzuaren eguneko kostuaren %90 izango da.

Hirugarrena: Mendetasuna duten adinekoentzako eguneko zentroetan sartzeko emango diren banako laguntza ekonomikoa aurrekontu-partida honen kargura ordainduko dira: Saila (03), Organikoa (0303), Egitaraua (231.106), Ekonomikoa (46100), PEP (2007/0633). Partida horren diru-izendapenak muga hauek izango ditu:

- 2017. urteko zenbatekoa: 13.938.597,00 euro.
- 2018. urteko zenbatekoa: 14.200.000,00 euro.
- 2019. urteko zenbatekoa: 14.900.000,00 euro.

Aurrekontuko partida honen kontura ordainduko dira: Saila (03), Organikoa (0303), Egitaraua (231.106), Ekonomikoa (46100), PEP (2007/0633).

Dena dela, Dekretua baliozkoa izan dadin, ezinbestekoa da indarrean egongo den ekitaldiko aurrekontuan haren ondoriozko betebeharrak ekonomikoa finantzatzeko behar den kreditu nahikoa egotea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesteko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

*Hirugarren klausula: Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 192/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarrean idatzia. Horren bidez aldatu zen abenduaren 20ko 185/2016 Foru Dekretua, mendekotasuna daukaten adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plazen gehieneko kostu teorikoa aldatzen duena, erabiltzailearen eguneroko ekarpena zehazten duena eta finkatzen duena, 2017, 2018 eta 2019. urteetarako, aurrekontu kontsignatzea eta kreditu erreserba (abenduaren 20ko BAO).*

*Indarraldia: 2019ko abenduak 21*

## **XEDAPEN IRAGANKORRA BAKARRA**

Foru dekretu honen arabera izapidetu eta ebatziko da Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretuaren babesaren pean aurkeztu diren baina foru dekretu hau indarrean sartzean eguneko zentro baten sartzeko laguntza ekonomikorik jaso ez duten onuradunen eskabideei dagokien ekarpenaren kalkulua.

Halaber, foru dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko zaio edozein espedienteri -haren hasiera-data eta egoera edozein direla-, baldin eta hura berrikusi behar bada erabiltzailearen inguruabar pertsonaletan, familia-egoeran, ekonomian edo ondarean izandako aldaketa baten ondorioz.

### **AZKEN XEDAPENA**

#### **Lehenengoa**

Foru dekretu hau 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

#### **Bigarrena**

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian ere publikatuko da testu hau, 1/2016 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera (Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Araua, 2016ko otsailaren 17koa).



**Dokumentu honen helburua da bakarrik informazioa ematea, ez du inolako balio juridikorik.**